

## HITZ EGITEN DUEN ORDENADOREA

Informatika-mundua edonorentzat irekia dagoela esan ohi da eta egunetik egunera urrats gehiago ematen ari dira bide honetan; bai software-etxeak eta baita hardware-etxeak ere.

IBMk atera duen *Screen Reader* sistema berriarekin beste oztopo bat gainditu da eta itsuek ez dute jadanik ordenadoreak ez erabiltzeko arrazoirik izango. *Screen Reader*-ek ordenadoreko informazio guztia soinu bihurtzen du eta horrela erabiltzaileak edozein momentutan pantailan agertzen den informazioaren berri izango du. Begirale-funtzioa ere betetzen du, erroren bat egindakoan abisua emanaz.

Sistema hau IBM PS/2 eta bateragarrietan ezar daiteke.

## APPLE-REN ESKAINTZA BERRIAK

Nahiz eta autoedizio-munduan Macintosh ordenadoreek abantaila nabarmenak erakutsi, ordenadore pertsonala erosteko uanean badirudi orain arte IBMren PCetara jo izan dela, hauen eta Macintosh-en arteko prezio-diferentzia dela medio.

Ordenadore pertsonalak hartzen ari diren pisuaz oharturik, Apple eskaintza berri batekin dator eta oraingo honetan benetan prezio harrigarriekin gainera. Hiru eredu aurkeztu ditu: Macintosh Classic da sinpleena eta 99.000 pta.tan lor daiteke; Macintosh LC koloreekin lan egiteko eta Macintosh II familiako ordenadore merkeago bat, Macintosh IIsi.

Macintosh Classic-ek bi konfigurazio posible ditu:

- \* 1 Mb-eko RAM memoria eta 1,4 Mb-eko disko-unitatea
- \* 2 Mb-eko RAM memoria, 1,4 Mb-eko disko-unitatea eta 40 Mb-eko disko gogorra.

Eredurik berriztatzaileena Macintosh LC izan daiteke; aurreko koloretako ekipoekin konparatuz %60ko beherapena bait du. Testuak eta koloretako grafikoak konbina daitezke, soinua sartzera onartzen du eta Apple II familiarekin bateragarri da. Classic-en abiadura bikoitza du eta 2 Mb-eko RAM memoria (10 Mb-eraino heda daiteke) 1,4 Mb-eko disko-unitatea eta 40 Mb-eko disko gogorra ditu.

Eredu hau datorren urtearen otsaila aldera egongo da eskuragarri eta 235.000 pta. balioko du.

Hiruretan handiena Mac IIsi dugu; Mac IICx-en parekoa. 256 kolorekin edo gris-mailarekin egin daiteke lan eta soinua sartzeko aukerak ere ematen ditu. 20 Mhz-eko abiadura du eta ondoko hiru konfigurazio hauek eskaintzen dira:

- \* 2 Mb-eko RAM memoria eta 40 Mb-eko disko gogorra
- \* 5 Mb-eko RAM memoria eta 40 Mb-eko disko gogorra

- \* 5 Mb-eko RAM memoria eta 80 Mb-eko disko gogorra

Hiru konfigurazio hauek 1,4 Mb-eko disko-unitatea ere barne dute.

## FAKTUREN ORDAINKETA AUTOMATIKOA

Ordainketa-kontuak gero eta errazago agertzen zaizkigu. Edozein motatako fakturak ordaintzeko balio duen kutxa automatikoa garatu du Centrisa etxeak. Sistema honek automatikoki identifikatzen du egin beharreko ordainketa; bileteak software bidez kontrolatzen ditu eta ganbioa ere itzultzen du.



Kutxa hauek etengabe daude funtzionamenduan eta punta-orduetan sortzen diren iladak eta denbora-galtzeak ebitatu nahi dira honekin. Sistema hau ipintzea Kataluniako gas-enpresa bati bururatu zaio eta jadanik instalaturik dauzka bi kutxa Bartzelonan.

Sistema honen softwarea Centrisa etxean sortu da eta helburu honetarako bereziki diseinatutako Nixford ekipo bat izan da aukeratu den hardwarea. Ekipo honek 80286 prozesadorea, 1 Mb-eko memoria, pantaila grafikoa, txartel magnetikoen irakurgailu/grabagailua eta ordainagiriak ateratzeko inprimagailu bat ditu. Ordaintzailearen eta ordainketaren identifikazioa barrakodeen bidez kodetuta egongo da fakturan. Erabiltzaileak ez du daturik sartu beharrik izango; sistemak automatikoki jasoko du informazioa scanner baten bidez.

Nahi izanez gero, datuak eskuz ere eman dakizkioke, poliza-zenbakia, data eta zenbatekoa teklatuz. 